

Irūnean, 2001.eko martxoaren 30ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
J. San Martin,
J. M. Satrustegi,
eta
Patxi Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzaila eta
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea

Irūneko ordezkari izan da Euskaltzainburua, 2001.eko martxoaren 30ean, hilero batzarra egiteko. Bileraren bideratzaileak eta erdian hasi da. Bilduren euskaltzainen izenak ezkerreko zutabearen jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute Xabier Diharce, Txomin Peillenek, P. Salaburuk, I. Sarasolak eta A. Zavalak.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Ohartxo bana egin dute P. Altunak eta J. A. Aranak. Lehenak, goizeko bilkurako parte hartzaileen artean bere izena agertzen ez delako. Bigarrenak, arratsaldeko bilkuran, Azkue Bibliotekari buruz esaten dena osatzeko: Lacomberen biblioteka katalogatu ez ezik, lanik interesgarrienak digitalizatu ere egingo direla aditzera ematea eskatu du.

Ohar hauekin, ontzat eman dira otsaileko bi agiriak.

Mailegua

Idazkariak Zuzendaritzan hartutako erabakiaren berri: Herri aginteengandik jaso beharrekoa oraindik jasotzeko dagoenez, berehala egin beharreko ordainketei aurre egin ahal izateko mailegu bat eskatzea. Hogei miloikoa izango da eta diruzainari emango zaio ahala mailegu hori bidera dezan.

Hizkuntza arauak.

Gramatika: -(e)n / (e)lako.

Patxi Goenagak zenbait xehetasun eman ditu arauaren asmoa zein den argitzeko. Xabier Kintanak galde egin du ea ez ote litzatekeen komeni bi atzizki horien artean bati lehentasuna ematea, *-(e)lako* baita maizenik erabiltzen dena. Azken batean, *-erantzun zaio-* arauaren xedea ez da *-(e)n* eta *-(e)lako*-ren artean dagokeen desberdintasuna argitzea, izenaren osagarri diren perpausetan euskara baturako forma onartuak zein diren finkatzea baizik. Eztabaida labur baten ondoren ontzat eman da araua.

Hiztegi Batua: a-aberats zerrendako abadira hitzaz.

Hitz hau dela eta, aurreko bilkuran txosten bat ekarriko zela agindu zen. Miren Azkaratek ekarri du txosten hori, baina jarraitu beharreko metodoari buruzko kezka eman du aditzera: banan-bana egin beharrean modu sistematikoagoan egitea komeniko litzateke. Hiztegi Batuko lantaldeak egin lezake lan hori. Lan sistematiko horren xedea zerrenda bereziak osatzea izango litzateke gero Euskaltzaindiaren eskuetan jartzeko. Bidezko ikusi da proposamena. Horregatik, oraingoz, **abadira** hitza ez da zerrendan sartuko. Gero, arrain, hegazti, eta abarren zerrenda osatzen denean ikusiko da zer egin.

Aberatsaile-abolizionista zerrenda.

Oharrek aztertzeari ekin aurretik, Azkarate andreak emandako epeak errespetatzeko eskatu die euskaltzainei. Hori egin ezean, zail gertatuko zaio Euskaltzaindiari ezarritako epeak betetzea.

Ondoren, aurkeztu diren oharrak aztertzeari ekin dio Euskaltzaindiak.

Satrustegi jaunak egindako oharra *-abere xehe* azpisarreraren parean *abere larri* ere sartzeari- besterik gabe onartu da.

H. Knörren oharrak aztertu dira gero.

abere buru sartzeari ez da onartu *abelburu* jadanik sartua baitago. Knörr jaunak erretiratu egin du azkenean oharra.

abesti, abestu sarrerak direla eta, ohargileak *kanta* eta *kantatu* hobestea eskatzen du. Hitzok jadanik arautuak daudela erantzun zaio eta hobespen markarik gabe arautuak, hain zuzen. Kintanak ere, Knörrekin bat, bereizketa egitea nahi luke. Satrustegi jaunak adierazi du honek beldurra ematen diola, horrela ezina gertatuko baita erabakitako 300 hitzak onartzera iristea. Ez da onartu Knörren jaunaren oharra.

Abesbatz izenaren ondoan ere *koru* nahiago luke Knörrek. Lehengo arrazoi berregatik, ez da onartu.

abian sarreraren, adibideak garbi utzi beharko omen luke *abian + izan* behar duela. Miren Azkarateren aburuz, jasotako adibideek aski garbi uzten dute laguntzaileak zein izan behar duen. Dena dela, bi adiera bereiztea onartu da: lehenbizikoa, jadanik ematen dena, adibide eta guzti. Eta bigarrenean 'berehala' esan nahi duela adieraziko da, Oxobiren adibide bat emanaz.

abiadura hitza *Ipar.* eta *Naf.* soilik ote den zalantzan jartzen du ohargileak. Hala ere, horrela arautua dago jadanik. Ohargilearen aburuz, bestalde, *abiadura-palanka* bezalakoak ez dira egokiak, *abiadura* hitzarentzat onartua den adierarekin ez baitator bat. Nahiago luke, agian, *joanera* edo. Euskara Batuko batzordeak Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena bere egiten duela adierazi du M. Azkaratek, zerrendatik *abiadura-kaxa* kenduz. Bozkatu da eta Euskara Batuko batzordearen oharra onartu da, 15 boztoekin. Knörr jaunarena, beraz, ez da ontzat eman.

Abiadura kontu hauekin Etxepareren obra aipatu denez, Charritton jauna kexu agertu da idazle haren obra guztiak ez daudelako corpusean sartuak. Sartzeari lortu beharko litzatekeela uste du.

Abiamen sarrerarako ohargileak proposatzen duen adibidea ez da onartu. Bestalde, *Zah.* marka kentzea erabaki da.

Abiatu-rentzat, aditz iragankor gisa, onartu da ohargileak proposaturiko adibidea sartzea: “ikerketak abiatu dituzte”.

Abikultura ez sartzea onartu da.

Andres Urrutiaren oharrak aztertu dira ondoren.

Abere-rentzat zenbait azpisarrera proposatzen ditu Urrutia jaunak:

abere beltz azpisarrera sartzeko proposamena, eztabaidaren ondoren, erretiratu egin du azkenean proposatzaileak.

abere hiltegi sartzea ez da onartu: aski da *hiltze* sarrerarekin. Beraz, ez da onartu oharra.

abere azoka dela eta ere eztabaida piztu da. Hitzak, euskal morfologia legeen arabera, inolako oztoporik ez badu ere, ez da hiztegian sartu beharrekotzat ikusi.

abere lapur sartu ala ez bozkatu da: 9 alde, 1 kontra. Beraz, *abere(-)lapur* sartuko da.

Aberrante alhora utzi da, gero alorkako zerrenda berezietan etor daitekeen hitza baita.

Aberrigabezia hitzari leku egitea eskatzen du ohargileak, *aberri* hitzaren familia osatze aldera eta *aberrigabe*-ren haritik tiraka. *Aberrigabe* onartua badago ere, ez da esaten zer esan nahi duen. Nolanahi ere, inon ez da esaten hitz horren esanahia ‘apátrida’ denik. Horrenbestez, hitz horren adiera argitzea arazo izanik, horren gainean beste hitz bat ematea, inongo lekukotasunik gabe, arazoa konpondu beharrean bikoiztea izango litzatekeela esan zaio ohargileari. Eztabaida luze eta norako argirik gabearen ondoren, ohargileak erretiratu egin du proposamnea.

Aberri-etsai ez da onartu.

Abertimendu: eztabaida luzearen ondoren honako hau onartu da: *abertitu*: Herr. h. **ohartarazi**, **jakinarazi**, **abisu eman**. *Abertimendu* Ipar. eta Herr. h. **abisu**.

Abiazio maileguarentzat ordain hobeak proposatuko lituzke ohargileak, baina, azkenean, ohar hau ere erretiratu egin du Urrutia jaunak.

Abiltasun sartzeko eskaria ere ohargileak berak erretiratu du.

Abolizio hitza sartzea onartu da, sinonimotzat *ezeztatze* emanaz. *Abolitu* hitzarentzat ere gauza bera onartu da.

Abonagarri-agertze zerrenda aurkeztea.

Azkarate andreak hurrengo bilerarako aztergai izango den zerrenda (*abonagarri-agertze*) aurkeztu du. Dokumentua ongi ulertzeko beharrezko diren oharrak azaldu ditu: 10 puntuko letretan ematen direnean esan nahi du ezer ez dela aldatzeko. ‘EAraru’ esaten badu, zerbait gehitzen dela esan nahi du. Gainerakoetan, euskaltzainek jadanik es-

kuetan duten duela hilabete batzuetako txosteneko oharrek ere kontuan hartu behar dira. Izartxoak ezartzeak hitza sartzeko dela esan nahi du.

Jagonet-eko galdera. Haserrearazi, narritatu. Haserrearazi da gure nahia.

Luis Villasante euskaltzainaren hutsarteak betetzeko bozketa.

Ordezko botoak zituzten euskaltzainek beren ahalak aurkeztu dituzte lehenbizi. Hauen balioak eztabaida labur bat izan da. Ordezkapen guztien bidez kotasuna onartu ondoren, bozketa egin da. Zenbaketak honako emaitza hau izan du: Andolin Eguzkitza jaunaren aldeko izan dira hamahiru boto. Koldo Zuazoren aldeko, berri, hamar. Horrenbestez, Euskaltzaindiaren erregelen arabera, Eguzkitza jauna gertatu da euskaltzain berri hautatua, lehen itzulian nagusitasun osoa erdietsi baitu.

Prentsaurrekoa.

Ondoren, Euskaltzaindiak Nafarroan euskarak bizi duen egoeraz adostutako adierazpenaren azken irakurketa egin da, kazetarien aurrean irakurri aurretik. Gero eten egin da bilkura. Hamabietan prentsaurrekoa izan da. Komunikabide ugari bildu du ekitaldi honek. Euskaltzainburuak irakurri du euskarazko testua eta Jagon sailburuak gaztelaniazkoa. Ondoren, galde-erantzunen tarteak ireki da. Kazetariak egindako itaunei Jagon sailburuak erantzun die.

Hamabiak eta hogeitabostean berriro lanari ekin dio batzarrak.

2000. urteko kontu errendapena.

J. J. Zearretak eman ditu 2000. urteko kontu errendapenari buruzko xehetasunak. 2000.eko aurrekontua berezia gertatu dela esan du, informatika ezarpena dela eta. Eskatutako argitasunak eman ondoren, ontzat eman da aipatutako kontu errendapena.

Eskuarteak

Kulturaren Euskal Kontseilurako ordezkaria izendatzea.

Kultura sailburuaren eskariz, sortu berri duten Kulturaren Euskal Kontseilurako Euskaltzaindiaren ordezkari izango dena izendatzea onartu da. Juan San Martin proposatu du Zuzendaritzak. Onartu da proposamena.

Datorren hileko bilkurez.

Euskaltzainburuak gogorazi du hurrengo bilkuran omenduko direla hil berri diren euskaltzainak: L. Villasante euskaltzainburu ohiaren hil berri txostena J. San Martin euskaltzain osoak irakurriko du; Mariano Izeta euskaltzain ohorezkoarena Pascual Rekalde jaunak; Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoarena P. Uribarren euskaltzain urgazleak eta Bitoriano Gandiaga euskaltzain ohorezkoarena, Juan Mari Lekuona euskaltzain osoak.

Hirurak hogeita bost gutxitan eman da amaitutzat bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *